

**KONTU-KONTARI****SOHÛTAKO MASKARADAK  
ETA DONIBANE GARAZIKO LIBERTIMENDUA****1. Sohütako maskaradak**

Urtarrilaren 16a, igandea, Sohütako lehen maskaradaren eguna. Sohüta, garai bateko Soroeta, Maule ondoan dago. Kari-rika bat iragaitea aski da Zuberoako hiriburutik Sohütara pasatzeko. Biztanle kopuruari dagokionez, gaurko Sohüta Zuberoako bigarren herria da, 1200 bizilagun inguru dituela. Maule-Lextarrek, berriz, 3.400 biztanle inguru ditu. Sohüta udalerria dugu, baina baita Mauleren luzapen naturala ere, eta bertara joan dira bizitzera Maulen etxea atxiki ez duten gazte ugari. Sohütan dago, bestalde, ikastola eta horrek ere nolabaiteko bultzada ematen dio.

2003an maskarada arrakastatsua jokatu zuten, eta hamahiru urte berantago, beste maskarada berezi-berezi batekin itzuli zaizkigu. Sohüta herri pastoral-zalea dugu. 1927an bi pastoral jokatu zituzten, Pette (Leon) Salaber-ek idatziriko “*San Andres*” izeneko eta J.P.Hegiaphal-ek idatziriko “*Napoleon*” izena zuena. 1954an “*Eüskaldunak Ibañetan*” jokatu zuten, 1984an “*Aimonen lau semeak*” izeneko, 2001ean, Jean Louis Davantek idatziriko “*Xiberoko makia*” eta 2013an pastoral-idazle berberak idatziriko “*René Cassin*” ospetsua.

Aurtengo maskarada, lehen aipatu bezala, berezi-berezia du, biziki mutil gutxi duena, eta neskei esker aitzina atera dena. Böhamerik ez zegoenez gero, neskek ordezkatu behar izan dituzte eta Zuberoako maskaraden historian lehen aldiz, bühaminak izan dira maskarada nolabait gidatu eta bideratu dutenak.

Hasieran, erran dudan bezala, urtarrilaren 16an izan zen Sohütako lehen maskarada. Hotza azaldu berria zen eta Zuberoako borthüak elurrez estalirik zeuden. Goizeko 10etan izan zen lehen barrikada-haüstea Bidart auzotegiko plazatxoan. Hiru musikarik giroa alaitu zuten, Mattin eta Beñüet Agor anaiek –lehen xirulaz eta tabalaz bigarrena– eta Johaine Etxebest xirulariak. Segidan aitzindariak, bühaminak, kaütherak,... herri-tarrak eta hurbildutako gainerako guztiak. Berehala Battitta Berrogainek ondutako lehen bertseta entzun genuen: *Agür; agür Sobüta eta sobütarrak / ürtatsez horra dira maskada denbora / goraintzi beroenak ere eskentzera / algarreki gozatzeko, ibaute xübarrak.*



*Aitzindariak lehen barrikadan dantzari*

Aurtengo maskarada jadanik hasia zen. Osora zazpi barrikada izan ziren: Bidart auzotegikoaz gain, Saihestokin, karrikan, herriko etxean, ikastolan, herriko gazteen mahaia eta pastoral-komitearena.

Horra hor, herriko etxean, mahaia zuzentzen zuen herriko auzapez anderearen aitzinean abestu zituzten bi bertsetak: *Andere auzapeza, kontseiluko jaun-andere / agürtzen zütiegü denak gogo hunez / Sobüta herriaren kargüdün zidie / herri batarzünaren ardüradün ere /// Geroago ederrago ageri bürgia / bozkattü beittüzie sos ezarte handiak / ez abatze balere, gaineko kartielak / pakatzen beittitie, baik ere ber le-garrak.*

Ikastolaren barrikada iristean, andereño zaharrak izan zituzten gogoan. Ikus ditzagun Battitta Berrogainek egin hiru bertsetak: *Agür andereñoak, gazte ta xaharrak / ikasle, lagüntzale, büraso güziak / herri ama eskola, Eperra ikastola / segürki heben dira biharko kabanak. /// Gütarik hanitx gira, heben handitürik / oroitzapen gosoak eskolan sortürik / Odette, Annie, Margarita, Solange, Xantiana / zien artin gozatü gure häürtarzüna. /// Balizate maskadarik eüskaldünik gabe / bai eta eüskaldünik ikastola gabe / Pitxu hiltzen denian, berpizten balere / Eperra da Sobütan eüskararen pizle.*

Ondoren, herriko gazteen barrikadara pasatu ginen denok. Maleruski hor baziren hainbat gazte erdaldun. Horrelako bertseta luzatu zieten: *Sobütako gazteak, vous êtes au rendez-vous / normalki da eüskaraz, bertseta devant vous / züentan eüskaldünik, ez da heben beaucoup / ordüan erdi frantsesez idatzirik por vous.*



*Bühaminen jokoa barrikadaren aitzinean*

Eta azkenik, gazteen barrikadatik abiatuta, pastoral-egileen komitearen barrikadara iragan ginen. Hantxe entzun genuen goiz hartan jaurti zuten azken bertseta: *Sobütak beti danik üsantxer lotürik / pastoral hanitx eginik eta zoin ederrik / agürtzen zütiegü, errespetüz beterik, / goraintzi beroenak gure adiskiderik.*

Goizeko azken barrikada ezohikoa izan zen, eta xorrotxen ordeztara ziren neskak artzainak han ibili ziren ardiak zaintzen; hartza, bitartean, gertu ibili zitzaizen saio osoan zehar.

Bazkari tenorea iritsi zelarik, bakoitza bere etxera erretiratu zen. Lagunak eta nik, autoaren gerizpean bazkaldu genuen eta kafe goxo-goxoa Allande Errezarret adiskidearen etxean dastatu genuen. Han izan ginen solas ederrean Allande eta Sara senar-emazte gazteekin eta baita Eloisa eta Andu seme-ala-

ba miresgarriekin ere. Hauei ere, noizbait, maskaradan parte hartzeko tenorea iritsiko zaie, dudarik gabe.

3,30etan, puntu-puntu, arratsaldeko saioa hasi zen herriko arrabotian. Jokoa eta dantzak bereziak izan ziren. Aintzina-pika, gabota, brailia, godalet-dantza... Brailia, adibidez, aitzindariak bakarrik dantzatu zuten, inolako jenderik gabe, eta biziki joko berezia eginez. Ber gauza gertatu zen godalet-dantzarekin. Dantzariak biziki onak ziren, baita kantoreetan aritu zirenak ere.



*Pitxu bereak eta bost egiten*





*Musikariek giro ederra piztu zuten.*



*Bübaminak eta bartza lagun ibili ziren.*



*Kaiiterak Kabanaren bitzak entzuten*

Bühaminek lan handia eta ederra egin zuten arren, ohikoan mutilek egiten dituzten balentrien hutsunea nabari zen. Normala zen, lehen aldia baitzen neskek horrelako bat gainean hartzen zutela, eta gainera, hantxe ziren ikusle eta entzule heien aita-amak, aitañi-amañiak, adiskideak eta gainerako herritarrak. Ez zen, beraz, bat ere erraza izan neska bühaminentzat, baina hori dena kontutan hartuta, heien jarduera duintasun osoz bete zutela erranen nuke nik. Hurrengo igandeetako maskaradetan ildo berriak zabalduko dituztelakoan nago, hau da, ardo onaren antzera, onduko direla uste dut nik.



Arratsaldeko 6etarako, iluntzen hasia zenean, bukatu zen dena. Nik Pitxuren testamentüaren falta sumatu nuen. Ondoren muñeinak eta aintzina-pika dantzara sartu nahi izan zuten guztiendako.

Ezohiko maskarada, zalantzarik gabe, baina merezimendu handia duena, Sohütako gazteak –eta gehien bat neskak– maskarada antolatzeke eta jokatzeko gai izan baitira, eta ez da gutti, gaurko gazteen arteko egoera negargarria ikusita. Biba Sohütako maskaradak! Biba bühaminak eta biba sohütar gazteak!

## 2. Donibane Garaziko Libertimendua

Inauteri garaian gaude. Neguaren indarrak apaltzen ari zaizkigu eta aurten inoiz baino azkarrago. Jadanik, bedatse edo udaberriaren lehen aztarnak gure artean daude. Urtarrilaren azken egunetan, neguaren nagusitasuna ekarri zuten gogora Donibane Garaziko karrketan. Maskarak, kantuak, dan-



tzak, bertsoak... nonahi ikus eta entzun izan zitezkeen. Berriz ere, zirtzil giroa nagusi izan zen Garaziko ostatu eta kaleetan.



*Donibane Garazi ederra*

Otsailaren 7an, berriz, Libertimenduaren garaia izan zen eta zirtzilekin batera, basandereak, zapurrak, bolantak, maki-lariak eta gainerako pertsonaiak atera ziren plazara. Goizeko 10,30etan, bezperatik zeru gainean zegoen ekaitz handien arteko atergune bat baliatuz, kabalkada alaia karriz karriz ibili zen. 11,15etan merkatura iritsi ziren eta bertako aterpean, Lizeoko ikasleek urtero prestatzen duten antzezlan barragarriari hasiera eman zioten. Ontsalaz, urtean zehar Garazi aldean edota Nafarroa Beherean gertatutakoak izaten dira antzerkirako iturri, eta bertakoen barre algarak sortarazten dituzte. Inoiz ez dira jendarmeak eta guardia zibilak faltatzen. Aurten ere, hor izan dira Ortzazeko gertaerak jokatu dituztelarik. Tarteka, nola ez, Garaztarrak taldeko dantzari trebeek Baxenafarroan horren ohikoak diren jauziak eskaini zituzten kolore eta trebezia handiaz: Dantza luze, Euskaldu-

nak eta sorginak... Ekhi Erremundegi eta Patxi Hiriart bertsolari gazteek lauzpabost saio tartekatu zituzten han gine non belarriak poztuz eta zorrotzuz.



*Zapurrak eta erraldoiak segizioaren aurrean*



*Bolanta koloretsuak*

Bukaera aldean, neguko eta udaberriko indarren arteko talka idurikatu zuten, baita azkenean, bedatsearen erabateko garaipena ongi jokatu ere. Gero, gerokoak, kantina ondoko kantuak, solasak, bertsoak... eta amaiera ederra emateko, berandu arte luzatu zen herritarren arteko bazkari goxo eta alegera.



*Basandereak, banderariak, makilariak eta andere xuriak*

Santibateak eta Libertimendua ohiko inautea izan da Nafarroa Beherea osoan, nahiz eta herri eta eskualdeetan modu eta itxura ezberdinak ukan dituen. Bi gerla handiek inautearen etena ekarri zuten eta denboraldi luzea iragan behar izan da usadio zahar hauek berpiztu ahal izateko.

Lehenak garaztarrak izan ziren, duela hamar bat urte. Antton Luku izan da horretan pertsona garrantzitsua, ahantzitako oroi-tzapenak jaso, aztertu eta berriz plazaratu dituena, eta harekin

batera, baita Garaztarrak dantza taldea eta Lizeoko antzerki atelierreko gazteak ere. Hiru eragile hauek izan dira, gehien bat, Baxenafarroako inautearen arrapiztea ekarri dutenak.

Geroxeago, Amikuze aldean hasi ziren, Donapaleuko Santibateak eta Libertimendua arrakasta handiaz arrapiztuz. Geroztik ere hor ari dira, han-hemenka, eta ahal bezala, Baigorriin, Oztibarren eta beste zenbait eskualdetan.

Nire irudikoz, Nafarroa Behereko inauteria ederra eta duina da, gora doana, ospea Euskal Herri osoan hartzen ari dena. Antton Lukuk, Pamiela argitaletxearen bidez, 2014an plazaratu zuen “Libertitzeaz” izeneko saiakera mardul eta gogoangarriak badu zer ikusirik Euskal Herri osoan hedatzen ari den ezagupen eta onarpenarekin.



*Makilariak, andere xuriak eta bolantak*

Denbora pittin bat eskas du. Hurrengo urteetan, egitura finkoak hartuko ditu eta euskal inauteriaren barruan toki zabala bereganatuko duelakoan nago. Hazia lur emankorretan ereiten jakin dute eta gazteek aitzina egiteko grina dagerkigute. Laster azalduko zaizkigu lili berri eta ederrak Baxenafarroako inautearen arloan. Neguko eta udaberriko indarren talka horrek badu zer erakutsi baxenafar herrietako inauterian. Hala bada, hala bedi!

*Joseba Aurkenerena Barandiaran*

Urruñan, 2016ko otsailaren 15ean.